

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak UAGN, FUNDAGRO eta AMUR erakundeen kontrako ustezko irregulartasunengatiko salaketa artxibatzen duen autoaren aurka egin du

Besteak beste instrukzio-epaileak berak "diru-laguntzak lortzeko baldintzak faltsutu diren zantzuak aurkitu" dituela uste du

Asteazkena, 2017.eko ekainak 21

Nafarroako Gobernuak erreforma-errekurtsoa eta apelazio-errekurtso subsidiarioa jarri du 2017ko ekainaren 9ko Iruñeko Instrukzioko 1. zenbakiko Epaitegiaren autoaren aurka. Horren bidez, pertsona batek egindako salaketaren ondorioz Guardia Zibilak egindako atestaturia jaso ondoren hasitako aurretiko eginbideak behin-behinean largestea eta artxibatzea erabaki zuen. Salaketan, UAGN, FUNDAGRO eta AMUR erakundeek Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako ikastaroak egitean irregulartasunak egin zituztela adierazten zen. Irregulartasun horietan, ikastaro horien ustezko parte-hartzaileen sinadurak faltsutzea eta benetan egin ez ziren ikastaroak justifikatzea barne hartzen ziren.

Aurretiko eginbideetan ere Guardia Zibilaren beste atestaturia osagarri batzuk ere jasotzen dira: 2015eko irailaren 10ekoa, 2016ko irailaren 5ekoa, 2017ko otsailaren 7koa eta 2017ko maiatzaren 10ekoa. Guardia Zibilak ustezko irregulartasunak zituzten 26 atestaturia aurkitu zituen, eta horietatik 9 bakarrik ikertu dira.

Gobernuak gaur jakinarazi duen moduan, errekurtsioa aurkeztu dute Guardia Zibilak bere atestaturia aipatutako espediente guztiak ez direlako ikertu eta instrukzio-epailearen beraren 2017ko martxoaren 6ko autoan haxe aitortu zelako: "administrazioko eta UAGN-FUNDAGRO eta AMUR erakundeetako zerbitzu teknikoaren arduradunak dagokienez, baldintzak faltsutu dituzten susmoak ditugu, Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak lortzeko. Guztira, 2.880.981,54 euro izango lirake 2009. eta 2015. urteen artean. Horrela, benetan joan ez ziren pertsonak parte hartu zuten prestakuntza-ikastaroak egin zirela eta ustez egin gabeko zerbitzuengatiko fakturak eta aurrekontuak faltsutu zituztela uste dugu".

Bestalde, errekurtsioan, instrukzio-epaileak aurkitutako preskripzioarekin ez dator bat, aurka egindako autoak "agiriaren faltsutzeak" antzematen dituen espedienteetako batean.

Gobernuaren errekurtsioa ez dator bat aurka egindako autoan jasotzen den arrazoiketarekin, Zigor Kodearen 308. artikulua delitu-zantzuak eta diru-laguntzak lortzeko iruzurrezko ekintzak daudela uste delako. Gobernuak, gainera, haxe adierazi du: "deigarria da UAGNko lehendakariak Epaitegian egindako deklarazioa, izan ere, berak eta

UAGNko gainerako kargu politikoek Recalde jauna erakundetik kentzea erabaki zutela, Zuzendari Teknikoaren arabera, diruz lagundutako zenbait ikastarotan aurkitutako irregulartasunen arduraduna zelako, UAGNko idazkari nagusiak eta zuzendari teknikoak adierazi zuten gauza bera".

Azkenik, Nafarroako Gobernuaren erreforma-errekurtsoan Nafar Lansarek UAGN eta FUNDAGRO erakundeei emandako diru-laguntzen espedienteen jarraipen-jarduerei eta 2009., 2010. eta 2011. urteetan FUNDAGROri diru-laguntzak emateko espedienteetan aurkitutako irregulartasunei buruzko ekainaren 19ko bi txosten aurkeztu dira.